

9

SEGURTASUNA SAREAN III

EKAINA
2017

Infokontsumoa



ONLINE ORDAINKETAK ETA ONLINE BANKA

SANTURTZI
udala - ayuntamiento
Stz

IUB
MIC

 **kontsumoBIDE**
KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO

ONLINE ORDAINKETAK

Internet bidezko erosketak egiten direnean, **ordainketa egiteko aukera batzuk** daude. Erosketaren, online saltokiarekiko konfiantza eta abarren araberako egokiena aukeratu behar dugu.

Ordainketak kreditu- edo zordunketa-txartelarekin

- ▶ Ordainketak plataforma ziurraren bidez -ST birtuala- egiten dira, zeinen bidez saltokiak erabiltzailearen banku-txartela egiaztatzen duen zifratutako komunikazioak erabiliz.
- ▶ **Autentifikazioa duen ST birtuala** modalitatea existitzen da. Modalitate horretan banketxeak dira txartela egiaztatu behar dutenak. Ordainketak inoiz ez direnez saltokiaren webgunetik pasatzen, saltokia ezin da txartelaren datuetara iritsi.



Aurreordainketako txartela birtualak


- ▶ Aurreordainketako diru-sarreran erabiltzaileak ezarritako zenbateko mugatua ordaintzeko euskarri gisa balio dute.
- ▶ Ordainketak egin daitezke, beroriek erabiltzailearen bankuko datuekin elkartu gabe.
- ▶ Edozein bankutan eska daitezke.



Ordaintzeko plataformak

- ▶ Bitarteko erakunde gisa jokatzeko duten zerbitzu independenteak dira, kobrantzak eta ordainketak arautuz, eta gerta litezkeen akats eta iruzurrak saihestuz.
- ▶ Baliabide hau erabili ahal izateko, bitarteko erakunde batean sortu behar da kontua, eta horixe da zure bankuko datuak ezagutzen dituen eta ordainketa egiteko balio duena.
- ▶ Ordainketa egiteko erabiltzailearen kontuaren pasahitza sartu behar da plataforman bertan. Horrela, ordainketa egingo den online saltokia ezin da erabiltzailearen txartela edo bankuko konturako datuetara iritsi.
- ▶ Zenbait adibide: Paypal, Google Wallet, Amazon Payments, ...




Telefono mugikorraren bidezko ordainketak

- ▶ **NFC edo Contacless teknologiaren bidez:** telefono mugikorrak duen txip txikia da eta egokitutako irakurgailura hurbiltze hutsarekin egiten da ordainketa. Eroso eta arina da, baina pasahitza edo pina jartzea gomendatzen da. 
- ▶ **Telefono-fakturaren bidez (hirugarrenen ordainketak):** Interneten transakzioak egiteko balio du, txartela edo bankuko kontuaren datuak eman gabe.
 - * Zerbitzuetarako aldizkako harpidetzak edo operadorea ez diren enpresek eskainitako produktu batzuen erosketa izaten da.
 - * Erosketa hauek ea automatikoki egiten dira eta kontsumitzaileek ez dute fakturan kargua egiten ari direlako kontzientzia.
 - * Konpainiek besterik ezean aktibatzen dute, hortaz, zerbitzu hauek kentzea eskatu behar da ez badira erabiliko.

Ad: Jolas edo programen deskargak; ikastaro, berri, foro eta abarrerako harpidetzak

- ▶ Plataforma elektronikoaren bidez egindako **berehalako ordainketak:**
 - * Esku diruaren erabilerarekin parekatzen dira, ordainketak eta kobrantzak egiteko duten arintasunagatik.
 - * Edonon eta edonoz egin daitezke erosketak erraztasun handiz.
 - * Partikularren artean transferentziak egiteko ere erabiltzen dira.

GOMENDIOAK

- ▶ Webgune seguruetan baino ez sartu zure isilpeko datuak: hasieran **https://** duten URL-ak eta **giltzarrapoa** itxita dutenak edota giltza dutenak. 
- ▶ **Sare pribatuak erabili** beti online gestioak egiteko. Wifi sare publikoak kalteberagoak dira. 
- ▶ Online saltoki baten fidagarritasunari buruzko zalantzarik izanez gero, **ordaintzeko plataformak** edo **jasotzean ordaintzeko plataformak** aukeratu.
- ▶ Ez fidatu ordaintzeko modua aldatu nahi duten salerosketez.
- ▶ **Berehalako dirua** igortzen duten enpresak **ez** dira Internet bidezko erosketetarako erabili behar. Izan ere, iruzurra egonez gero, ez dizute dirua berreskuratzeko aukera ematen. 
- ▶ **Pasahitza sendoak** erabili (nahastu letra larriak, xeheak, zenbakiak, karaktere bereziak) eta ez partekatu inorekin zure pasahitza.
- ▶ **Nabigatzailea eguneratuta** izan azken bertsioarekin eta babestu zure gailuak **eguneratuta dagoen antibirusaren** bidez.
- ▶ **Ezinbesteko informazioa** baino ez eman.
- ▶ Erabiltzaile eta pasahitza jarri duzun webguneetatik ateratzean **itxi beti saioa**.

ONLINE BANKA

Online banka erabiltzerakoan, kontuan izan hurrengo **gomendioak**:

- ▶ **Egiaztatu** zure bankuaren webgunean sartu zarela eta eragiketak erakundearen beraren plataforma ziurrean egiten ari zarela.
- ▶ **Mesfidantza izan** zure finantza-erakundearen mezu edo e-maila **jasotzen duzun bakoitzean**, eta are gehiago zure kontuan sartzeko esteka batean klikatzeko edo pasahitzak eskatzen badizkizute.
- ▶ **Ez klikatu estekan eta ez eman inoiz zure pasahitza txartelaren koordenatu 1 edo 2 baino gehiago**, baldin baduzu.
- ▶ **Telefonoz deitzen badizute** banku erakundeak direla esanez, ez eman pasahitzik, ez eta informazio pertsonalik deian zehar, edozein izan liteke.
- ▶ Kontrakorik azkar egin ezean, kontua ordu edo egun gutxiren buruan baliogabetuko dela jakinarazten duten mezuak ere faltsuak dira.
- ▶ Sarritan **kontsultatu** zure bankuko webgunea ziurtasunari buruzko gomendio eta aholkuak jasotzeko.
- ▶ Edozein zalantza izanez gero, **jar zaitetz zuzenean harremanetan zure banketxearekin**.

Iturriak:

Kontsumobide, www.kontsumobide.euskadi.eus

Oficina de Seguridad del Internauta (OSI), www.osi.es

NON ETA NOLA EGIN ERREKLAMAZIOA

Edozein zalantzatarako edo erreklamaziotarako:

Santurtziko KIUB bulegora

Kontsumitzaileei Informazioa emateko Udal Bulegoa

Murrieta etorbidea, 25. (Oriol Jauregiaren ondoan)

Ordutegia: 9:30-13:30 astelehenetik ostiralera

